

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Urkullu, ETA desegiten lagundu

ETAren amaieraren azken kapituluak jarraitzen ari denak badaki borroka armatuarekin amaitzeko emandako urratsetan, Estatuak eta alderdi gehienek beti eskatzen dutela urrats bat gehiago. Eta hala izango da ETAk bere desagerpena iragartzen duenean ere, hori ere etorriko baita eta, seguruenik, euskal preso guztiak kaleratu baino lehen gainera.

ETAri bere jarduera armatua amaitzea eskatu zaio beti, hala izanik Estatuaren eskuzabaltasuna aginduz. Baina hala gertatu denean, lehen erantzuna ezetz izan da: ez da posible ETAk erabakitzen duenean armak jadanik ez zaizkiola errentagarri, “bakea presoen truke” mahai-gaineratzea eta listo. Hori inpunitatea dela gaineratzen dute biktimen elkarte indartsuenek. Eta mezu honek, funtsean, Estatuaren eskuzabaltasunaren teoria zapuzten du, irabazle eta garaituen ideia aireratuz, Espainiaren eraikuntzaren historia nagusi izan den tesia.

ETAren su-eten iraunkorraren lehen urteurrenak bikain agertu ditu txanponaren bi aldeak. Batetik, EH Bilduren arrakasta EAEko hauteskunde autonomikoetan, beste bake prozesu batzuetan ere gertatu den ildoan. Bestetik, Espainiako Gobernuaren mesprezua bake prozesua eraikitzeari. Oraingoan, zoritxarrez, ez dago bestela dela pentsatzeko motiborik.

Datuak ugari dira. Presoen kateak laxatu beharrean, Josu Uribetxebarria auziarekin zein hari jarraituko duen erakutsi du Estatuak. Estrasburgoko Auzitegiak Parot doktrinaz emandako epaia bere iritzi publikoa Gobernuaren aurka ez jartzeko baliatu beha-



THEKLAN / WIKIPEDIA

rrean, helegitea jarri du. ETAren iragarpen historikoaren urteurrenerako, haren buruzagitzat jotzen dituenak atxilotu zituen (Izaskun Lesaka eta Joseba Iturbide). Kolonbiako Gobernu eta FARC Oslon egiten ari diren kontrakoa, alegia. EH Bilduren aurkako ilegalizazio mehatxuak bata bestearen atzean datoz. Eta jokaldia biribiltzeko, Aurore Martinen Espainiaratzea eta, Auzitegi Nazionalaren aginduz, bere espetxeratzea.

Espainiako Barne Ministerioak badaki ETA armak entregatzeko prest dagoela eta ondoren desegiteko, baina berdin zaiola adierazi du, ETA garaitu egingo duela eta bere kideak Espainiako justiziaren menpe jartzen jarraituko duela

Espainiako Barne Ministerioak badaki ETA armak entregatzeko prest dagoela eta ondoren desegiteko, baina berdin zaiola adierazi du, ETA garaitu egingo duela eta bere kideak Espainiako justiziaren menpe jartzen jarraituko duela. Ez zaio irtenbiderik ikusten presoen auziari. Edonork daki, alabaina,

700 presok espetxeetan jarraitzen duten bitartean bakeak eta elkarbizitzak jai dutela euskal gizartean. Estrasburgoko Auzitegiak Parot doktrinari buruz emandako epaia behin-betiko bihurtuko da epe laburrean eta tren hori baliatu beharko luke Mariano Rajoyren Gobernuak bake prozesuan behin-betiko engaiatzeko.

Patxi Lopezek ere –EH Bilduren beldurrez nagusiki– ez du baliatu bere agintaldia bake prozesua sendotasunez auzatzeko. PP gobernu-lagun izateak ez dio lagundu horretarako, eta iraungitze data zuen gobernuarekiko harrotasunak ere ez. Beretzat, interesgarriagoa izan da ETArekin bere gobernuak amaitu duela esatea, bake bidean konpromisoak hartzen jarraitzea baino. Eta hautesleek bere lekuan jarri dute. Herritarrek ondo identifikatzen dute ETAren amaieran nork egin duen gehien eta, hainbat arrazoi-rengatik, saritu egiten dute.

Política Exterior Espainiako aldizkari ospetsuak hala dio bere urriko zenbakian: “ETAk armak entregatzeko eta desegiteko aukerak %90etik gorakoak dira. Une batetik bestera behin-betiko desegitura daiteke, ados. Baina oraindik ez dago deseginda”. Bai, azken bultzada behar du. Bakeak ikuspegi ugari ditu, baina ikuspegi adostu bat eskura dago. Jaurlaritza berriak hasieratik erakutsi beharko luke PP egiazko bake prozesu batera erakartzeko ahalegina. Gizarteak badu gogorik kapitulu hau duintasunez pasatzeko. Krisiarekin batera, horra Iñigo Urkulleren zeregin eta desafio nagusia. ■

